Sin./Fdo.: AGER IZAGIRRE LOROÑO - 2026-04-24
FORU DIPUTATUA ETA IDAZKARIA
DIPUTADO/A FORAL Y SECRETARIO/A

Sin./Fdo.: ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA - 2026-04-30
AHALDUN NAGUSIA
DIPUTADO/A GENERAL

Akordioa/Acuerdo: DF 00045/2026 - Data/Fecha: 2026-04-30
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA - 2026-04-30
GZko 2.gaia onartuta - Aprobado, asunto 2) de OD

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Bizkaiko Foru Aldundiaren FORU DEKRETUA, zeinaren bidez onartzen baitira baserritar ekoizle-egileek parte hartzen duten elikagai-azoketako azpiegituretan jarduteko Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Foru Sailak 2026an ematen dituen dirulaguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak.

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de las subvenciones que se concedan en el 2026 por el Departamento Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales para actuaciones en infraestructuras de mercados de alimentación en los que participen personas baserritarras productoras/elaboradoras.

Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2026rako Aurrekontu Orokorretan, behar den kreditua kontsignatu da, baserritar ekoizle-egileentzako elikagai-azoken azpiegituretan toki eskumeneko konponketak edo inbertsioak egiteko dirulaguntzak ordaintzeko. Horretarako, beharrezkoa da araudi erregulatzailea ezartzea.

En los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2026 se ha consignado el crédito preciso en orden a hacer efectivas las subvenciones para reparaciones y/o inversiones de competencia local en infraestructuras de mercados de alimentación destinadas a personas baserritarras productoras/elaboradoras a cuyo efecto se hace necesario establecer la normativa reguladora.

Foru-dekretu honek betetzen ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak aurreikusten baitira irailaren 1eko 39/2015 Legean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoan, eta 3. artikuluan jasotzen baititu Bizkaiko Foru Aldundiaren 2021eko ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuak, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duenak. Halaber, dekretu horren 14. artikuluan ezarritakoarekin bat, txosten hauek egin dira:

El presente decreto foral responde a los principios de buena regulación previstos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y recogidos en el artículo 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia. Asimismo, tal y como establece el artículo 14 de este decreto, se han emitido los siguientes informes:

1. Proiektua sustatu duen sailaren txosten juridikoa.
2. Generoaren gaineko eraginik ezari buruzko txostena

1. Informe Jurídico del departamento promotor.
2. Informe de ausencia de relevancia de impacto de género.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 4W92-RHPZ-S1SY-PIPW
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

3. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1. artikuluak ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari dirulaguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko foru-dekretu bidez, aurretik zerbitzu juridikoak txostena emanda; eta Dirulaguntzen Erregelamendua onetsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikuluak aukera ematen du oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak duela haiek onesteko ahalmena.

Halaber, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikuluak ezartzen du foru-diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailetako gaiei buruzko foru-dekretuen proiektuak onets ditzan.

Horrenbestez, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saileko foru-diputatuak eta Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko foru-diputatuak proposatuta, Bizkaiko Foru Aldundiak eztabaidatu ondoren, honako hau

3. Informe de control económico.

El artículo 16.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, habilita a la Diputación Foral de Bizkaia para aprobar las bases reguladoras de la concesión de subvenciones mediante decreto foral, previo informe del servicio jurídico y el artículo 41.1 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, establece la posibilidad de la tramitación conjunta de las bases reguladoras y la convocatoria, residiendo en el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral la competencia para su aprobación.

Asimismo, el artículo 39 k) de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia determina que compete a los diputados forales y a las diputadas forales proponer a la Diputación Foral, para su aprobación, los proyectos de decreto foral en las materias propias de su departamento.

En su virtud, a iniciativa del diputado foral del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales y la diputada foral del Departamento de Medio Natural y Agricultura, y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 4W92-RHPZ-S1SY-PIPW
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. *Foru-dekretu honen xedea.*

Baserritar ekoizle-egileek parte hartzen duten elikagai-azoketako azpiegituretan toki-eskumeneko konponketak edo inbertsioak sustatzeko Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Foru Sailak dirulaguntzak emateko deialdia eta oinarriak onesten dira. Hona deialdi-oinarrion testua:

1. oinarria. *Dirulaguntzaren xedea.*

1. Arautegi erregulatzaile honetan aipatzen diren dirulaguntzen xedea hau da: toki-eskumeneko konponketak edo inbertsioak sustatzea baserritar ekoizle-egileek parte hartzen duten elikagai-azoketako azpiegituretan.

2. Diruz lagundu ahal izango dira 2025eko urtarrilaren 1etik 2027ko martxoaren 31ra bitartean egin diren edo egingo diren jarduketak.

3. Dirulaguntzako jarduketak toki-eskumeneko inbertsio edo konponketa hauek izango dira:

a) Baserritar ekoizle-egileek, osorik edo zati batean, erabiltzen dituzten elikagai-azoketako eraikin, lokal, instalazio eta ekipamenduetan egindakoak.

b) Baserritar ekoizle-egileek erabiltzen dituzten elikagai-azoketako altzarietan egindakoak.

DISPONGO:

Artículo único. *Objeto del presente decreto.*

Se aprueban las bases-convocatoria para la concesión de subvenciones por el Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales para el fomento de reparaciones y/o inversiones de competencia local en infraestructuras de mercados de alimentación en los que participen personas baserritarras productoras/elaboradoras, cuyo texto se inserta a continuación.

Base 1. *Objeto de la subvención.*

1. Constituye objeto de las subvenciones a que se refieren la presente normativa reguladora el fomento de reparaciones y/o inversiones de competencia local en infraestructuras de mercados de alimentación en los que participen personas baserritarras productoras/elaboradoras.

2. Serán subvencionables las actuaciones ejecutadas o a ejecutar desde el 1 de enero de 2025 hasta el 31 de marzo de 2027.

3. Las actuaciones subvencionables serán las siguientes inversiones o reparaciones de competencia local:

a) Las realizadas en aquellos edificios, locales, instalaciones y equipamientos de mercados de alimentación que sean utilizados/as, total o parcialmente, por personas baserritarras productoras/elaboradoras.

b) Las referidas a mobiliario del mercado de alimentación que sea utilizado por personas baserritarras productoras/elaboradoras.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 4W92-RHPZ-S1SY-PIPW
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

4. Inbertsioak Administrazioak bere baliabideekin egiten dituenean, langile-gastuak ez dira diruz laguntzekoak izango.

4. Cuando las inversiones sean realizadas por la Administración con medios propios no serán subvencionables los gastos de personal.

5. Aurreko 3. apartatuko a) letran aurreikusitako jarduketek ezin badute eduki baserritar ekoizle-egileen erabilera esklusiborik, hau izango da diruz laguntzekoa: diruz lagundutako jarduketaren xede den merkatuan emandako baimen edo emakida guztien artean, baserritar ekoizle-egileei emandako kopuruaren proportzioaren ehunekoa.

5. En el supuesto a) del apartado 3 anterior, cuando las actuaciones previstas en el mismo no admitan un uso exclusivo por personas baserritarras productoras/elaboradoras, se considerará subvencionable el porcentaje equivalente a la proporción que representa el número de concesiones/autorizaciones otorgadas a personas baserritarras productoras/elaboradoras respecto del total de las concedidas en el mercado objeto de la actuación subvencionada.

6. Dekretu honen ondorioetarako, baserritar ekoizle-egileak dira dagokion nekazaritza- edo abeltzaintza-ustiategien erregistro ofizialean inskribatutako pertsona fisikoak, juridikoak edo ondasun-erkidegoak.

6. A los efectos de este Decreto se consideran personas baserritarras productoras/ elaboradoras las personas físicas, jurídicas o las comunidades de bienes inscritas en el registro oficial de explotaciones agrícolas y/o ganaderas correspondiente.

2. oinarria. *Dirulaguntzaren erakunde onuradunak.*

Base 2. *Entidades beneficiarias de la subvención.*

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-erakundeak izan daitezke dirulaguntzen onuradun, baldin eta ez badaude Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluko 2. apartatuan jasotzen diren egoeretakoren batean.

1. Podrán acogerse a las subvenciones previstas en el presente decreto foral las entidades locales del Territorio Histórico de Bizkaia, siempre que no incurran en ninguna de las circunstancias prohibitivas contenidas en el apartado 2 del artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el Régimen Jurídico General de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

2. Ezin izango dute deialdi honetan parte hartu sexua dela-eta inor baztertzeagatik administrazio-zehapenen edo zehapen penalen bat jaso duten erakundeek eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea dela-eta debeku hori ezarri zaienek, dagokien zehapena indarrean dagoen bitartean.

2. No podrán concurrir a la presente convocatoria, durante el periodo que establezca la correspondiente sanción, las entidades sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo, ni las sancionadas con esta prohibición en virtud de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 4W92-RHPZ-S1SY-PIPW
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

3. oinarria. *Araubide juridikoa.*

Hau izango da dirulaguntzen araubide juridikoa:

a) Foru-dekretu honetan araututako oinarriak eta deialdia.

5/2005 Foru Araua, maiatzaren 31koa, zeinaren bidez arautzen baita Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra.

c) 34/2010 Foru Dekretua, martxoaren 23koa, zeinaren bidez onesten baita diru-laguntzen erregelamendua, 5/2005 Foru Araua garatzen duena.

d) Administrazio Zuzenbideko gainerako arauak eta, halakorik ezean, Zuzenbide Pribatuko arauak aplikatuko dira.

Base 3. *Régimen jurídico.*

El régimen jurídico de estas subvenciones será:

a) Las bases-convocatoria reguladas en este Decreto Foral.

b) La Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

c) El Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005 de Subvenciones.

d) Las restantes normas de derecho administrativo y, en su defecto, se aplicarán las normas de derecho privado.

4. oinarria. *Arau-hausteak eta zehapenak.*

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan xedatutakoa ezarriko da, baita arau hori garatzen duen erregelamenduaren IV. titulua ere.

Base 4. *Infracciones y sanciones.*

En lo referente a infracciones y sanciones se aplicará lo establecido en el Título IV de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y en el Título IV del Reglamento de desarrollo.

5. oinarria. *Eskabideak aurkezteko modua eta epea.*

1. Toki-erakunde interesdunek egoitza elektronikoaren bidez aurkeztuko dute eskabidea; horretarako epea foru-dekretu hau BAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasi eta 2026ko ekainaren 30ean amaituko da.

Eskabidearekin batera, hurrengo oinarrian eskatzen diren agiriak elektronikoki sinatuta, hala badagokio, erantsiko dira.

Base 5. *Forma y plazo en que deben presentarse las solicitudes.*

1. Las entidades locales interesadas presentarán la solicitud a través de Sede Electrónica en un plazo a contar desde el día siguiente a la publicación del presente Decreto Foral en el BOB, y que termina el 30 de junio de 2026.

A la solicitud se adjuntará la documentación firmada electrónicamente, en su caso, requerida en la base siguiente.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 4W92-RHPZ-S1SY-PIPW
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

6. oinarria. *Eskabidearekin batera nahitaez aurkeztu behar diren agiriak.*

1. Eskabidea foru-dekretu honen I. eranskineko eredu normalizatuan egingo da, eta harekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Dirulaguntzaren xede den jardueraren aurrekontu zehaztua (jasandako BEZ ez kengarria barne), eta, hala badagokio, baloratutako proiektu tekniko bat, legez nahikoa eskumen duen teknikari batek idatzia.

Elikagai-azoketako eraikin, lokal, instalazio eta ekipamenduetako jarduketek ez badute onartzen baserritar ekoizle-egileen erabilera esklusiborik, aurrekontu-kapitulu horietan inguruabar hori adierazi beharko da.

b) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik daudela egiaztatzen duten agiriak, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailari berariaz baimena ukatu bazaio egiaztagiri horiek zuzenean ziurtagiri telematikoen bidez lortzeko. Eskatzaileak, dirulaguntzarako eskabidea aurkeztearekin batera, baimena ematen dio Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Sailari zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak zuzenean lortzeko. Hala ere, eskatzaileak berariaz adieraz dezake ukatu egiten diola baimen hori.

c) Toki-erakundeko idazkaritzaren txostena, gai haiei buruzkoa, II. eranskineko ereduaren arabera:

Base 6. *Documentación preceptiva a presentar en la solicitud.*

1. La solicitud se efectuará en el modelo normalizado que figura en el anexo I al presente decreto foral, al que se adjuntará la siguiente documentación:

a) Presupuesto detallado de la actuación para la que se solicita la subvención, incluyendo el importe del IVA soportado no deducible, y, en su caso, el proyecto técnico valorado, redactado por personal técnico con atribuciones legales suficientes.

En aquellos capítulos presupuestarios que impliquen actuaciones en edificios, locales, instalaciones y equipamientos de mercados de alimentación que no admitieran un uso exclusivo por personas baserritarras productoras/elaboradoras, deberá indicarse dicha circunstancia.

b) Documentación acreditativa del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social en caso de haber denegado expresamente el consentimiento para que el Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales obtenga de forma directa las acreditaciones oportunas a través de certificados telemáticos. La presentación de la solicitud de subvención conllevará la autorización para que el Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales obtenga de forma directa las certificaciones oportunas acreditativas del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social. No obstante, se podrá denegar expresamente el consentimiento.

c) Informe de la Secretaría de la entidad local, según modelo del anexo II:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 4W92-RHPZ-S1SY-PIPW
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

1. Eskatzaileak, helburu bererako, estatuko zein nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik eskuratu edo eskatu dituen dirulaguntzak edo laguntzak.
2. Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 5/2005 Foru Arauaren 12.2. artikuluan aipatzen diren inguruabarrak ez gertatzea; izan ere, egoera horiek eragotzi egiten dute onuradun izateko aukera.

1º Sobre otras subvenciones o ayudas que el solicitante hubiese obtenido o solicitado para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales o internacionales.
2º Sobre la no concurrencia de las circunstancias referidas en el artículo 12.2 de la Norma Foral 5/2005, por la que se regula el Régimen Jurídico de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y que impiden la obtención de la condición de entidad beneficiaria.

3. Zehapenak.

3º Sobre las sanciones.

4. Baserritar ekoizle-egileek parte hartzen duten elikagai-azoketako azpiegituretan konponketak edo inbertsioak egiteko duen toki-erakundeak duen eskumena

4º Sobre la competencia de la entidad local para acometer las reparaciones y/o inversiones en infraestructuras de mercados de alimentación en los que participen personas baserritarras productoras/elaboradoras.

5. Dirulaguntzaren xede den elikadura-merkatuan, 2025ean eta 2026an izandako emakida edo baimenen kopuru osoa eta ekoizle-egileei emandakoen kopurua.

5º Sobre el número total de concesiones/autorizaciones y sobre las asignadas a las personas baserritarras productoras/elaboradoras, en el mercado de alimentación objeto de subvención tanto en el 2025 como en el 2026.

d) Memoria: jarduketaren deskribapen laburra, berariaz aipatuta, dirulaguntzaren xede den elikadura-merkatuan, 2027ko martxoaren 31ra arte aurreikusitako emakida edo baimenen kopuru osoa eta baserritar ekoizle-egileentzat aurreikusitakoa.

d) Memoria: breve descripción de la actuación con expresa mención a las nuevas concesiones/autorizaciones previstas totales y las referidas a las personas baserritarras productoras/elaboradoras, en el mercado de alimentación objeto de subvención hasta el 31 de marzo de 2027.

e) Kontu-hartzailearen edo idazkari eta kontu-hartzailearen txostena, gastua xedatu den edo xedatuko den aurrekontu-kredituari buruzkoa, III. eranskineko ereduaren araberakoa.

e) Informe de la intervención o de la secretaría-intervención relativo al crédito presupuestario contra el que se ha dispuesto o se dispondrá el gasto, de acuerdo con el modelo establecido en el anexo III.

f) Teknikari eskudunaren adierazpena, dirulaguntzaren xede den jarduketa, IV.

f) Declaración de la persona técnica competente sobre haber valorado con

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 4W92-RHPZ-S1SY-PIPW
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

eranskinaren arabera, genero-ikuspegiarekin baloratu izanari buruzkoa.

perspectiva de género la actuación objeto de subvención según el anexo IV.

2. Eskabidearekin batera eskatzen diren agiriak aurkeztu ez edo oso-osorik aurkezten ez badira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, interesdunei errekerimendua egingo zaie hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituzten nahitaezko agiriak eransteko, eta adieraziko zaie, hala egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko dela, horretarako ebazpena 21. artikuluan jasotako moduan eman ondoren.

2. Si junto con la solicitud no se aportan los documentos exigidos o se aportan de forma incompleta, se requerirá a los interesados, de acuerdo con lo establecido en el artículo 68.1 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y, para que, en un plazo de diez días, subsane las faltas o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 21 de la citada Ley.

3. Edonola ere, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailak aurkezten diren eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du.

3. En todo caso, el Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales podrá solicitar cuanta información complementaria considere necesaria para la adecuada comprensión y evaluación de las solicitudes presentadas.

7. oinarria. *Dirulaguntza emateko prozedura.*

Base 7. *Procedimiento de concesión.*

Dirulaguntzak emateko prozeduran, norgehiagokaren araubiderako arauetan zehazten diren izapideak beteko dira.

El procedimiento de concesión de las subvenciones se ajustará a los trámites normativamente previstos para el régimen de concurrencia competitiva.

8. oinarria. *Eskabideak baloratzeko irizpideak*

Base 8. *Criterios de valoración de las solicitudes*

Eskabideak hurrengo irizpideen arabera baloratuko dira:

Las solicitudes se valorarán en función de los siguientes criterios:

1. Dirulaguntzaren xede den elikadura-merkatuan, emakida eta baimenen kopuru osoan, baserritar ekoizle-egileentzako emakida edo baimenen kopuru osoaren proportzioa. 2025ean eta, hala badagokio, 2026an onartutakoak hartuko dira kontuan, bai eta 2027ko martxoaren 31ra arte aurreikusitakoak ere.

1. Proporción que representa el número de concesiones/autorizaciones a favor de personas baserritarras productoras/ elaboradoras sobre el total de concesiones/autorizaciones en el mercado de alimentación objeto de la subvención. Se tendrán en cuenta tanto las ya acordadas en el 2025 y, en su caso, 2026, como las previstas hasta el 31 de marzo de 2027.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 4W92-RHPZ-S1SY-PIPW
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

a) % 50 baino gehiago, 40 puntu

b) % 50 eta % 10 bitartean, 25 puntu

c) %10 puntu baino gutxiago, 10 puntu

b) Más de 50% , 40 puntos

c) Entre 50% y 10%, 25 puntos

d) Menos de 10%, 10 puntos

2. Dirulaguntzaren xede den elikadura-merkatuan, dagokion ustiategiaren erregistro ofizialean inskribatuta dauden baserritar ekoizle-egileentzako emakida edo baimenen kopurua. 2025ean eta, hala badagokio, 2026an onartutakoetarako hartuko dira kontuan, bai eta 2027ko martxoaren 31ra arte aurreikusitakoetarako ere.

a) 8 baino gehiago, 60 puntu
b) 4 eta 8 bitartean, 50 puntu
c) 4 baino gutxiago, 40 puntu

2. Número de concesiones/autorizaciones en el mercado de alimentación objeto de la subvención a favor de personas baserritarras productoras/ elaboradoras, inscritas en el registro oficial de explotación correspondiente. Se tendrán en cuenta tanto para las ya acordadas en el 2025 y, en su caso, 2026, como las previstas hasta el 31 de marzo de 2027:

a) Más de 8 , 60 puntos
b) Entre 4 y 8, 50 puntos
c) Menos de 4, 40 puntos

9. oinarria. *Dirulaguntzaren zenbateko indibidualizatua.*

Base 9. *Cuantía individualizada de la subvención.*

1. Deialdi honetarako aurrekontu-kreditua 500.000 € da.

1. El crédito presupuestario para la presente convocatoria es de 500.000€.

2. Hauek diruz laguntzeko moduko aurrekontutzat hartzen dira, 4. eta 5. apartatuetan ezarritakoa alde batera utzi gabe:

a) Deialdi honen xederako baldintzak betetzen dituena.
b) Gehienez ere 100.000 €, 4. apartatuan ezarritakoa alde batera utzi gabe.
c) Bider 8. oinarriaren arabera lortutako puntuazioa, eta horren emaitza zati 100.

2. Se considera presupuesto subvencionable sin perjuicio de lo establecido en los apartados 4 y 5 siguientes:

a) El que reúna las condiciones del objeto de la presente convocatoria.
b) Hasta un máximo de 100.000€, sin perjuicio de lo establecido en el apartado 4.
c) Multiplicado por la puntuación obtenida de acuerdo con la Base 8 y dividido entre 100

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa bi fasetan zehaztuko da: hasierako fasean, 2. apartatuan definitutako diruz laguntzeko moduko aurrekontuaren arabera zehaztuko da, eta, behin betiko fasean, 2. apartatuan definitutako

3. La cuantía de la subvención se determinará en dos fases, una inicial en función de los presupuestos subvencionables definidos en el apartado 2 y otra definitiva, en función de las adjudicaciones de los presupuestos

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 4W92-RHPZ-S1SY-PIPW
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

diruz laguntzeko moduko aurrekontuen adjudikazioen arabera, 5. apartatuan xedatutakoarekin bat etorrita.

subvencionables definidos en el apartado 2, según se dispone en el apartado 5.

4. Hasierako fasean, dirulaguntzaren zenbatekoa prozedura honen arabera zehaztuko da:

4. En la fase inicial la cuantía de la subvención se determinará según el siguiente procedimiento:

a) Hasiera batean, 500.000 euroko aurrekontu-kreditua diruz laguntzeko moduko aurrekontuen proportzioan banatuko da, 2. apartatuko definizioaren arabera. Diruz lagundutako ehuneko hori ezin da % 100 baino handiagoa izan.

a) El crédito presupuestario de 500.000€ se distribuirá inicialmente en proporción a los presupuestos subvencionables según la definición del apartado 2. El porcentaje subvencionado no puede ser superior al 100%.

b) Baldin eta a) letran ezarritakoa aplikatu ondoren deialdiko kreditua agortzen ez bada, soberakina aurretik adjudikatutako zenbatekoen arabera banatuko da, aurkeztu eta onartutako aurrekontuaren mugarekin. Aurkeztu eta onartutako aurrekontuaren % 100 lortu dutenak kanpoan geratuko dira.

b) Si después de aplicar lo establecido en la letra a) no se agotara el crédito de la convocatoria, se distribuirá el sobrante en proporción a los importes asignados anteriormente con el límite del presupuesto presentado admitido, excluyendo los que ya han conseguido el porcentaje del 100% del presupuesto presentado admitido.

Iterazio hori behar beste aldiz egingo da, deialdiaren kreditua agortu arte, betiere aurkeztutako aurrekontu onartuen baturak 500.000 euroko aurrekontu-kreditua gainditzen badu.

Esta iteración se realizará tantas veces como fuera necesario hasta agotar el crédito de la convocatoria, siempre y cuando la suma de los presupuestos presentados admitidos excediera del crédito presupuestario de 500.000€

5. Behin betiko zenbatekoa zehazteko, 4. apartatuko prozedura bera aplikatzen da, baina adjudikatutako zenbatekoen gainean. Diruz lagundutako ehuneko hori ezin da % 100 baino handiagoa izan.

5. Para la determinación del importe definitivo, se aplica el mismo procedimiento del apartado 4, pero sobre los importes adjudicados. El porcentaje subvencionado nunca puede superar el 100%.

10. oinarria. *Prozeduraren instrukzioa.*

Base 10. *Instrucción del procedimiento.*

1. Kide anitzeko organo batek egingo du instrukzioa, eta ebazpen-proposamena helarazi beharko dio laguntza ematen duen organoari. Hauek osatzen dute kide anitzeko organo hori: Udal Harremanen Zuzendaritza Nagusia, Udal Azterlanetarako eta Toki Erakundeen Ekonomi Laguntzarako

1. El órgano colegiado formado por los titulares de la Dirección General de Relaciones Municipales, Jefatura del Servicio de Estudios Municipales y Asistencia Económica a Entes Locales, la Jefatura de Sección de Asistencia Económica, una persona técnica del Servicio y una persona técnica del Departamento de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 4W92-RHPZ-S1SY-PIPW
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Zerbitzuko burua, Ekonomia Laguntzarako Atalaleko burua, zerbitzuko teknikari bat eta Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko teknikari bat.

Medio Natural y Agricultura instruirán el procedimiento debiendo elevar la propuesta de resolución al órgano concedente.

2. Dirulaguntzak ematen dituen organoa Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru-diputatua da; dirulaguntzak foru-agindu bidez ematen dira.

2. El órgano concedente será el diputado foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales mediante orden foral.

11. oinarria. *Ebazpenaren edukia, ebazteko eta jakinarazteko epea, jakinarazteko bidea eta dagokion organoaren aurrean aurkez daitezkeen errekurtsoak*

Base 11. *Contenido de la resolución, plazo de resolución y notificación, medio de notificación y recurso ante el órgano que corresponda.*

1. Ebazpenek amaiera emango diote administrazio-bideari, eta interesdunei gehienez ere bi hilabeteko epean jakinaraziko zaizkie, eskatutako agiriak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuta. Hala ere, epe hori luzatu egin ahal izango da, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 23. artikuluan zehazten den kasuan.

1. Las resoluciones que se dicten pondrán fin a la vía administrativa y serán notificadas a los interesados en el plazo máximo de dos meses desde la finalización del plazo de presentación de la documentación exigida. No obstante, este plazo podrá ser ampliado en el supuesto previsto en el artículo 23 de la Ley 39/2015, de1 de octubre.

2. Aurreko apartatuan adierazten den gehieneko epea igaro bada eta ez bada ebazpenik eman ez jakinarazi, interesdunek euren eskabideak administrazio-isiltasunez ezetsitzat jo ahalko dituzte.

2. Transcurrido el plazo máximo señalado en el apartado anterior sin que se hubiera dictado y notificado la resolución, los solicitantes podrán entender desestimadas sus solicitudes por silencio administrativo.

3. Dirulaguntza eman zaiola adierazten duen jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epean toki-erakunde onuradunak ez badu horren kontra ezer adierazten, dirulaguntza onartu dela ulertuko da.

3. Si en el plazo de diez días contados desde el día siguiente a la notificación de la resolución de concesión la entidad local beneficiaria no manifiesta nada en contrario, se entenderá aceptada la subvención.

4. Udal Harremanen Zuzendaritza Nagusiak baliabide elektronikoz jakinaraziko die ebazpena toki-erakunde interesdunei.

4. La Dirección General de Relaciones Municipales notificará a las entidades locales interesadas la resolución por vía electrónica.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 4W92-RHPZ-S1SY-PIPW
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

5. Ebazpenaren aurka, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpenaren biharamunetik hasita. Nahi izanez gero, eta goiko errekurtso hori jarri baino lehen, errekerimendua aurkeztu ahal izango da ebazpena eman duen organoari zuzenduta, bi hilabeteko epean, jakinarazpenaren biharamunetik hasita.

5. Contra la resolución se podrá interponer directamente, recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo contencioso-administrativo en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente a la notificación. Potestativamente y con carácter previo al recurso citado, se podrá presentar requerimiento ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de dos meses, a contar desde el día siguiente al de la notificación.

12. oinarria. *Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzearen ondorioz ebazpena aldatzea ekar dezaketen inguruabarrak.*

Base 12. *Circunstancias que, como consecuencia de la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, podrán dar lugar a la modificación de la resolución.*

1. Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailak onar dezake aldaketak egitea diruz lagundutako aurrekontuan, baldin eta justifikaturik badago, arrazoi berriak eta ustekabekoak agertu direlako, nahitaezkoak dirulaguntzaren helburua lortzeko. Horretarako, toki-erakunde onuradunak aldaketak onartzeko eskaera aurkeztuko du, dagozkion egiaztagiriak erantsita, egikaritze-proiektua barne, eskaerarekin batera bidalitakoaren aldean aldaketak badaude.

1. El Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales podrá admitir modificaciones sobre el presupuesto subvencionado, justificadas por causas nuevas e imprevistas que resulten necesarias para la consecución del objeto de la subvención. A tal efecto, la entidad local beneficiaria presentará la solicitud de admisión de las modificaciones y aportará la documentación justificativa correspondiente, incluyendo el proyecto de ejecución en caso de que haya variaciones con respecto al remitido con la solicitud.

2. Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako foru-diputatuak, foru-agindu bidez, eskatutako aldaketen gaineko ebazpena emango du, eta onartzen den aurrekontu aldatua izango da, ondore guztietarako, diruz laguntzeko moduko aurrekontua.

2. El diputado foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, mediante orden foral, resolverá sobre las modificaciones solicitadas siendo el presupuesto modificado admitido el que se tendrá, a todos los efectos, como presupuesto subvencionable.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 4W92-RHPZ-S1SY-PIPW
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

3. Ez da onartuko kapitulu berriak sartzea eragiten duen aldaketarik, halakoen zenbatekoa, guztira, diruz lagundutako aurrekontuaren % 30 baino gehiago bada. Halaber, ez da onartuko aurrekontuan dagoeneko badauden kapituluak gehitzea eragiten duen aldaketarik, baldin eta kapitulu bakoitzak diruz lagundutako aurrekontua % 50 baino gehiago handitzea badakarte. Lehendik zeuden ataletan murrizketak egiten direnean, 20. oinarrian ezarritakoa beteko da.

4. Aldaketa horiek onartzeak ez du ekarriko diruz laguntzeko moduko aurrekontuaren zenbatekoa handitzea.

13. oinarria. *Bizkaiko Foru Aldundiak emandako dirulaguntzen publizitatea*

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira emandako behin betiko dirulaguntzak, honako hauek adierazita: deialdia, zein programa eta aurrekontu-kredituri egozten zaizkion, erakunde onuraduna eta diruz lagundutako proiektua.

14. oinarria. *Toki-erakunde onuradunak eman zaion dirulaguntzaren zabalkundea egitea.*

Dirulaguntzaren toki-erakunde onuradunak publizitate egokia eman beharko dio 16. oinarrian aipatutako dirulaguntzari, honako hauek kontuan hartuta:

1. Dirulaguntzaren xede den jarduketa 15.000 euroko edo gehiagoko zenbatekoan adjudikatzen bada, jarduketa gauzatzen den bitartean publizitate egokia eman beharko zaio, onuradunaren webgune ofizialaren bidez edo zabalkunde masiboa bermatzen duen beste edozein bitartekoren bidez, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa eta jatorria adierazita. Bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira, eta hizkuntzaren erabilera

3. No se tendrán en cuenta modificaciones que supongan la incorporación de capítulos nuevos por un importe total superior al 30% del presupuesto subvencionado, ni las que supongan aumento de capítulos ya existentes en el mismo por un importe superior al 50% del presupuesto subvencionado, de cada capítulo. Tratándose de disminuciones de capítulos ya existentes se estará a lo establecido en la base 20.

4. La admisión de estas modificaciones no implicará el aumento de la cuantía del presupuesto subvencionable.

Base 13. *Publicidad de las subvenciones concedidas por parte de la Diputación Foral de Bizkaia.*

Se publicarán en el Boletín Oficial de Bizkaia las subvenciones definitivas concedidas, con expresión de la convocatoria, programa y crédito presupuestario al que se imputan, beneficiario y proyecto subvencionado.

Base 14. *Difusión de la subvención concedida por parte de la entidad local beneficiario.*

La entidad local beneficiaria de la subvención deberá dar adecuada publicidad a la subvención concedida referida en la base 16, de acuerdo con lo siguiente:

1. Cuando la actuación objeto de subvención se adjudique en un importe igual o superior a 15.000 euros, durante la ejecución de la misma, deberá dar adecuada publicidad a través de la página web oficial del beneficiario, o por cualquier otro medio que garantice la difusión masiva, indicando el importe y la procedencia de la subvención concedida. Se utilizarán las dos lenguas oficiales, velando por el uso no sexista del lenguaje (Anexo VII.a).

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 4W92-RHPZ-S1SY-PIPW
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

sexistarik ez dela egiten zainduko da (VII.a eranskina).

2. Gainerako kasuetan, dirulaguntzaren zenbatekoa eta jatorria agerrarazi beharko dira soilik diruz lagundutako jarduketa toki-erakunde onuradunak berak egiten duenean, eta publizitate hori agertzen den bitarteko berean agerrarazi beharko dira.

2. En los demás casos tales circunstancias sólo se harán constar en el caso de que la entidad local beneficiaria realice su propia publicidad de la actuación objeto de subvención y en el mismo medio en que ésta se efectúe.

15. oinarria. *Gastua xedatzeko epea*

Diruz lagundutako jarduketen gastuak 2025eko urtarrilaren 1etik 2026ko urriaren 20ra bitartean xedatu behar dira. Epe hori luzaezina izango da.

Base 15. *Plazo de disposición del gasto.*

Las actuaciones subvencionadas deberán estar dispuestas entre 1 de enero de 2025 y el 20 de octubre de 2026. Este plazo será improrrogable.

16. oinarria. *Dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa*

1. 2026ko azaroaren 3tik aurrera, toki-erakunde onuradun bakoitzak xedatutako zenbatekoak ikusita, berriro ere banatuko da deialdiaren zenbatekoa, 9. oinarrian deskribatutako prozeduraren arabera banatu ere, baina kasu honetan kontuan hartuko da aurretik zer zenbateko onartu diren.

2. Prozeduraren instrukzio-organoak, 17. oinarrian adierazitako agiriak aztertu ondoren, txostena egingo du hauei buruz:

a) Dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoak zehazteko proposamena, 9. oinarrian dirulaguntza banatzeko ezarritako irizpideak aplikatuta.
b) Ordainketa osorako edo ordainketa osagarrirako proposamena.

3. Oinarri honetako aurreko bi apartatuen arabera, dirulaguntza zenbateko finkoa da, diruz lagundutako jarduketaren portzentaje edo zati bat kontuan hartu gabe.

Base 16. *Importe definitivo de la subvención.*

1. A partir del 3 de noviembre de 2026, vistos los importes dispuestos por todas las entidades locales beneficiarias, se procederá de nuevo al reparto del importe de la convocatoria de acuerdo con el procedimiento descrito en la base 9 pero teniendo en cuenta, en este caso, los importes adjudicados.

2. El órgano instructor del procedimiento una vez analizada la documentación indicada en la base 17, informará sobre:

a) La propuesta de fijación de importes definitivos de subvención de acuerdo con la aplicación de los criterios de reparto establecidos en la base 9.
b) La propuesta de abono total o abono complementario.

3. La subvención concedida, de acuerdo con los dos apartados anteriores de esta base, se considera un importe cierto sin hacer referencia a ningún porcentaje o fracción de la actuación subvencionada.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 4W92-RHPZ-S1SY-PIPW
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

17. oinarria. *Ordainketa.*

1. Dirulaguntza ordaindu ahal izateko, erakunde onuradunak honako hauek bidali beharko ditu Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailera, 2026ko azaroaren 3a baino lehen:

a) Adjudikazio-data.

b) Dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa ordaintzeko eskabidea (V. eranskina). Horretarako dagoen laukitxoa markatu behar da.

c) Kontu-hartzailetzaren funtzioak betetzen dituen organoaren txostena, non jaso behar den kredituak ez direla aurreko ekitaldietan xedatutako gastuen soberakinen gehikuntzen ondorio (VI. eranskina).

d) Eskatzaileak helburu bererako estatuko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik beste dirulaguntza eta laguntzarik lortu badu, laguntza horiei buruzko adierazpena (VII.b eranskina).

e) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik daudela egiaztatzen duten agiriak erakunde onuradunak berak aurkeztu behar ditu, baldin eta Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailari berariaz ukatu bazaio agiriok zuzenean lortzeko baimena.

f) Adjudikatutako aurrekontua, kapitulutan banakatua, edo idazkaritzaren idazkia, non adierazten baita adjudikaziodunaren bajaren ehunekoa, eta baja hori lineala dela aurkeztutako hasierako aurrekontuaren kapitulu guztietarako.

Base 17. *Pago.*

1. Para proceder al pago, la entidad local beneficiaria deberá remitir al Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales en un plazo que termina el 3 de noviembre de 2026:

a) Acuerdo de adjudicación.

b) La solicitud de abono del importe definitivo la subvención (Anexo V). Señalando a tales efectos la casilla correspondiente.

c) El informe del órgano que ejerza las funciones de intervención en el que se haga constar que los créditos no se refieren a incorporaciones de remanentes de gastos dispuestos en ejercicios anteriores (Anexo VI).

d) La declaración, en su caso, de las subvenciones y ayudas que el solicitante hubiera obtenido para la misma finalidad, procedentes de cualquier administración, ente público o privado, nacional o internacional (Anexo VII.b).

e) Las acreditaciones de estar al corriente en sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social, la entidad beneficiaria deberá aportar dichas certificaciones si se ha denegado expresamente el consentimiento al Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales para que obtenga de forma directa.

f) Presupuesto adjudicado, desglosado en capítulos o escrito de secretaría indicando el % de baja de adjudicación y que ésta es lineal a todos los capítulos del presupuesto inicial presentado.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 4W92-RHPZ-S1SY-PIPW
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

g) 12. oinarriaren arabera dagokionean, hasierako aurrekontuarekiko onartutako aldaketak onartzeko eskaera eta aldaketa horien justifikazio-agiriak, egikaritze-proiektua barne, baldin eta eskaerarekin batera bidalitakoaren aldean aldaketak badaude.

h) Kontratazio arloko araudia bete dela egiaztatzen duen dokumentazioa (IX. eranskina).

2. Aurrekoa gorabehera, aukera dago 9. oinarriko 4. zenbakiaren arabera zehaztutako hasierako zenbatekoaren ordainketa eskatzeko; horretarako, toki-erakunde onuradunak aurreko zenbakian adierazten diren agiriak bidali beharko dizkio Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailari, 2026ko irailaren 15a baino lehen (horretarako, dagokion laukitxoa markatu beharko du V. eranskinean).

3. Toki-erakundeak hasierako zenbatekoaren ordainketa eskatu badu, eta 16.2 oinarria aplikatuz emandako zenbatekoa handitzen bada, toki-erakunde onuradunak ordainketa osagarria ere eskatu duela ulertuko da.

g) Cuando proceda de acuerdo con la base 12, solicitud de admisión de las modificaciones aprobadas respecto al presupuesto inicial, así como la documentación justificativa de dichas modificaciones, incluyendo el proyecto de ejecución en caso de que haya variaciones con respecto al remitido con la solicitud.

h) La documentación acreditativa de haber cumplido lo establecido en materia de contratación (Anexo IX).

2. No obstante lo anterior, se podrá solicitar el abono del importe inicial determinado de acuerdo con la base 9, apartado 4, para lo cual, la entidad local beneficiaria deberá remitir al Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales, en un plazo que termina el 15 de septiembre de 2026, los documentos indicados en el apartado anterior. (Señalando, a tales efectos, la casilla correspondiente en el Anexo V).

3. Si la entidad local ha solicitado el pago del importe inicial, y se aumenta la cantidad concedida en aplicación de la base 16.2, se entenderá que la entidad local beneficiaria también ha solicitado el pago complementario correspondiente.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 4W92-RHPZ-S1SY-PIPW
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

18. oinarria. *Diruz lagundutako jarduketa egikaritzeko epea, ordainketa-epea eta dirulaguntzaren xederako erabili izanaren eta jasotako funtsei emandako erabileraren justifikazioa*

Base 18. *Plazo de ejecución, pago y justificación del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos.*

1. Diruz lagundutako jarduketak 2027ko martxoaren 31 baino lehen guztiz amaituta egon beharko dira. Horretarako, bakarrik hartuko dira kontuan 2027ko apirilaren 30a baino lehen ordainduta dauden fakturak. Ondasun inbentariagarriak eskuratu, eraiki, birgaitu eta hobetzen badira, 5/2005 Foru Arauaren 29.4 a) artikuluan xedatutakoaren arabera, toki-erakunde onuradunak ondasunak dirulaguntzaren xede zehatzerako erabili beharko dituen aldia foru-arauan ezarritako gutxieneko aldia izango da.

1. Las actuaciones subvencionadas deberán quedar totalmente ejecutadas en un plazo que termina el 31 de marzo de 2027. A tal efecto, solo se tendrán en cuenta las facturas pagadas en un plazo que termina el 30 de abril de 2027. En el supuesto de adquisición, construcción, rehabilitación y mejora de bienes inventariables, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 29.4 a) de la Norma Foral 5/2005, el período durante el cual la entidad local beneficiaria deberá destinar los bienes al fin concreto para el que se concedió la subvención será el mínimo establecido en Norma Foral.

2. Dirulaguntzaren xede den jarduketa egikaritzean, toki-erakundeak, ahal dela, oztopo arkitektonikoak eta komunikaziorako oztopoak kentzeko ahalegina egingo du, hala dagokionean.

2. En la ejecución de la actuación objeto de subvención, la entidad local, en la medida de lo posible, procurará la eliminación de las barreras arquitectónicas y de comunicación, en el caso de que proceda.

3. Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailak, salbuespenezko egoeretan eta aurkeztu beharreko justifikazioa onartu ondoren, 1. apartatuko jarduketaren egikaritze-epearen luzapena onar dezake, foru-diputatuaren foru-agindu bidez. Luzapenaren iraupena zehazteko, diruz lagundutako jarduketaren inguruabarrak hartuko dira kontuan, eta, edonola ere, 2027ko maiatzaren 31n amaituko da.

3. El Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales, en supuestos excepcionales y previa aceptación de la justificación pertinente, mediante orden foral del diputado foral, podrá conceder una prórroga al plazo de ejecución del apartado 1, cuya duración se fijará en función de las circunstancias que concurran en la concreta actuación subvencionada y que, en todo caso, finalizará el 31 de mayo de 2027.

4. Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailak, salbuespenezko egoeretan eta aurkeztu beharreko justifikazioa onartu ondoren, 1. apartatuko ordainketa-epea luzatu ahal izango du. Luzapenaren iraupena diruz lagundutako jarduketaren inguruabarren arabera

4. También podrá, en supuestos excepcionales y previa aceptación de la justificación pertinente, mediante orden foral del diputado foral, conceder una prórroga al plazo de pago del apartado 1, cuya duración se fijará en función de las circunstancias que concurran en la concreta actuación subvencionada y que, en

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 4W92-RHPZ-S1SY-PIPW
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

zehaztuko da, eta, edonola ere, 2027ko ekainaren 30ean amaituko da.

todo caso, finalizará el 30 de junio de 2027.

5. Toki-erakunde onuradunak eskaera eginda, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailak, foru-agindu bidez, onar dezake aldaketak egitea diruz lagundutako aurrekontuan, baldin eta justifikaturik badago, arrazoi berriak eta ustekabekoak agertu direlako, nahitaezkoak dirulaguntzaren helburua lortzeko.

5. El Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales, previa solicitud de la entidad local beneficiaria y mediante orden foral del diputado foral, podrá admitir modificaciones sobre el presupuesto adjudicado subvencionado, justificadas por causas nuevas e imprevistas que resulten necesarias para la consecución del objeto de la subvención.

6. Ez da onartuko kapitulu berriak sartzea eragiten duen aldaketarik, halakoen zenbatekoa, guztira, diruz lagundutako aurrekontu adjudikatuaren % 30 baino gehiago bada. Halaber, ez da onartuko aurrekontuan dagoeneko badauden kapituluak gehitzea eragiten duen aldaketarik, baldin eta kapitulu bakoitzak diruz lagundutako aurrekontu adjudikatua % 50 baino gehiago handitzea badakarte. Lehendik zeuden ataletan murrizketak egiten direnean, 20. oinarrian ezarritakoa beteko da.

6. No se tendrán en cuenta modificaciones que supongan la incorporación de capítulos nuevos por un importe total superior al 30% del presupuesto adjudicado subvencionado, ni las que supongan aumento de capítulos ya existentes en el mismo por un importe superior al 50% del presupuesto adjudicado subvencionado, de cada capítulo. Tratándose de disminuciones de capítulos ya existentes se estará a lo establecido en la base 20.

7. Ez da inola ere handituko emandako dirulaguntzaren zenbatekoa.

7. En ningún caso se aumentará el importe de la subvención concedida.

8. Toki-erakunde onuradunek VIII. eranskineko ereduaren araberako justifikazio-kontua bidali beharko diote Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailari, egikaritze-epea amaitu eta hurrengo hiru hilabeteko epean. Kontu horri honako hauek erantsiko zaizkio:

a) Azken ziurtagiriaren kopia.

b) Justifikazio-fakturen kopia eta fakturak ordaindu izanaren frogagiriak.

8. Las entidades locales beneficiarias deberán remitir al Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales, dentro de los tres meses siguientes a la finalización del plazo de ejecución, la cuenta justificativa de acuerdo con el modelo del Anexo VIII a la que se adjuntará:

a) Copia de la certificación final.

b) Copia de las facturas justificativas y justificación de pago de las mismas.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 4W92-RHPZ-S1SY-PIPW
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

c) Eskatzaileak helburu bererako estatuko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik beste dirulaguntza eta laguntzarik lortu badu, laguntza horiei buruzko adierazpena (VII.b eranskina).

c) Declaración, en su caso, de las subvenciones y ayudas que el solicitante hubiera obtenido para la misma finalidad, procedentes de cualquier administración, ente público o privado, nacional o internacional (Anexo VII. b)

d) Publizitatea behar bezala egin dela egiaztatzen duen dokumentazioa (VII.a eranskina).

d) Documentación acreditativa de haberse efectuado la adecuada publicidad (Anexo VII. a).

e) Dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duen jarduera-txostena, non egindako ekintzak eta lorturiko emaitzak adierazten diren.

e) Memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.

9. Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira proiektu edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzuten dioten eta epearen barruan exekutatu eta ordaindu diren beharrezko gastuak, betiere indarreko arautegiaren arabera behar bezala justifikatu badira.

9. Se considerarán gastos subvencionables, aquellos que, siendo correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor, se hayan ejecutado y pagado en plazo, sean necesarios y respondan a la naturaleza y al normal desarrollo del proyecto o actividad.

10. Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, egindako gastua aintzat hartzeko, ezinbesteko baldintza izango da benetan ordaintzea justifikazio-aldia amaitu aurretik.

10. A efectos de lo establecido en el artículo 29 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, para que se considere el gasto realizado será requisito indispensable que haya sido efectivamente pagado con anterioridad a la finalización del período de justificación.

11. Bizkaiko Foru Aldundiak dirulaguntzaren behin betiko likidazioa egingo du diruz lagundutako inbertsioaren azken kostuaren arabera.

11. La Diputación Foral de Bizkaia practicará la liquidación definitiva de la subvención en base al coste final de la actuación subvencionada.

12. Dirulaguntza zenbateko finko gisa ematen da; beraz, toki-erakunde onuradunaren ardura izango da diruz lagundutako aurrekontua guztiz exekutatzeko beharrezkoa den gainerako finantzaketa lortzea. Zenbateko hori bakarrik gutxituko da aurrekontua osorik edo zati batean exekutatzen ez bada, 20. oinarriarekin bat.

12. La subvención se concede como un importe cierto quedando de cuenta de la entidad local beneficiario la diferencia de financiación necesaria para la total ejecución del presupuesto subvencionado. Se disminuirá, únicamente, en caso de inejecución total o parcial de acuerdo con la base 20.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 4W92-RHPZ-S1SY-PIPW
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

13. Diruz lagundutako jarduketaren xedea lortzen ez bada, galdu egingo da emandako dirulaguntza.

13. En caso de no conseguir el objeto de la actuación subvencionada, se perderá la subvención concedida.

19. oinarria. *Beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna, estatuko nahiz Europar Batasuneko beste edozein administrazio edo entitate publiko zein pribatuk edota nazioarteko erakundeek helburu berarekin emandakoak badira.*

Base 19. *Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.*

1. Nolanahi ere, dirulaguntza hauekin batera beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuk jaso daitezke xede berarekin, baldin eta Estatuko, Europar Batasuneko zein nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk emandakoak badira. Baina kontuan hartu beharko da beste dirulaguntza horiek arautzen dituen araudiak horren inguruan ezartzen duena.

1. Las subvenciones concedidas por la Administración Foral son compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo que al respecto pudiera establecer la normativa reguladora de las otras subvenciones concurrentes.

2. Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, inola ere ezingo da izan diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

2. El importe de la subvención concedida en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

3. Eskatzaileak helburu bererako bateraezina den beste dirulaguntza bat jaso badu aurretik, eskabidean jaso beharko da hori. Halakoetan, dirulaguntza emateko ebazpenak baldintza ezarriko du ondorioak izateko: toki-erakunde onuradunak uko egitea aurretiaz lorturiko dirulaguntzei, eta, hala badagokio, jasotako funts publikoak itzultzea.

3. Cuando el solicitante hubiera obtenido otra subvención anterior incompatible para la misma finalidad, se hará constar esta circunstancia en la solicitud. En este supuesto la resolución de concesión condicionará sus efectos a la presentación por parte de la entidad local beneficiario de la renuncia a las subvenciones previamente obtenidas, así como en su caso, al reintegro de los fondos públicos que hubiese percibido.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 4W92-RHPZ-S1SY-PIPW
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

20. oinarria. *Baldintzak ez betetzea eta dirulaguntza itzultzea*

Base 20. *Incumplimiento y reintegros.*

1. Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.2.k artikuluan ezarritakoaren arabera, dirulaguntza ematean ezarritako baldintzen ez-betetzeak mailakatzeko irizpideak honako hauek dira:

1. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 16.2.k de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el Régimen Jurídico General de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral, se establecen los siguientes criterios para la graduación de los incumplimientos de las condiciones impuestas con motivo del otorgamiento de la subvención:

a) Dirulaguntza ematea eragin zuen jarduketa deialdian ezarritako epean egikaritzen ez bada, emandako dirulaguntza osoa galduko da.

a) La no ejecución de la actuación para la que se otorgó la subvención, en el plazo establecido en la convocatoria, conllevará la pérdida total de la subvención concedida.

b) Dirulaguntza ematea eragin zuen jarduketaren zati bat soilik gauzatzen bada deialdian ezarritako epean, galdu egingo da gauzatu ez den zatiari dagokion dirulaguntza, betiere egikaritze partzial horrek diruz lagundutako jarduketaren helburua lortzea eragozten ez badu.

b) La ejecución parcial de la actuación para las que se otorgó la subvención en el plazo establecido en la convocatoria, dará lugar a la pérdida de la subvención correspondiente a la parte no ejecutada en plazo, siempre que dicha ejecución parcial en plazo no impida la consecución del objeto de la actuación o actuaciones subvencionadas.

c) Foru dekretu honen 18. oinarrian ezarritako moduan justifikatzen ez bada eta justifikazioa nahikoa ez bada edo eskasa bada, emandako dirulaguntzatik epe barruan justifikatu ez denaren zatia galduko da.

c) La no justificación y la justificación insuficiente o deficiente en los términos establecido en la base 18 de este decreto foral, dará lugar a la pérdida de la parte de la subvención concedida y no justificada en plazo.

d) Diruz lagundutako jarduketa egitearen ondoriozko obligazio likidoak ordaindu ezean, dirulaguntzaren zati bat galduko da, zehazki, diruz laguntzeko moduko egotzitako gastu guztietatik ordaindu gabeko obligazioek osatzen duten proportzioan.

d) La falta de pago en plazo de las obligaciones líquidas y exigibles derivadas de la ejecución de la actuación subvencionada dará lugar a la pérdida de la parte proporcional de la subvención correspondiente a las obligaciones no pagadas respecto al total de gastos subvencionables imputados.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 4W92-RHPZ-S1SY-PIPW
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

2. Toki-erakunde onuradunak jasotako dirulaguntza osorik edo haren zati bat itzuli ahal izango du, dagokion ordainketa-gutunaren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 76. artikuluarekin bat etorriz (dekretu horren bidez, Dirulaguntzen Erregelamendua onesten da, Foru Administrazioaren dirulaguntzen araubide juridiko orokorra ezartzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzekoa).

2. La entidad local beneficiaria podrá efectuar la devolución total o parcial de la subvención recibida mediante la pertinente carta de pago, de conformidad con el artículo 76 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010 de 23 de marzo por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones de desarrollo de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

21. oinarria. *Pertsona onuradunen beste betebehar batzuk.*

Base 21. *Otras obligaciones de las entidades beneficiarias.*

Toki-erakunde onuradunak honako hauek egin beharko ditu:

a) Jasotako funtsen erabilera justifikatzen duten agiriak kontserbatzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontroleko jarduketak egin baitaitezke.

b) Finantza-kontroleko eginkizunak dituzten organoekin lankidetzan aritzea.

c) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatutakoa betetzeko, hizkera sexistarik ez dela erabiltzen zainduko da.

La entidad local beneficiaria deberá:

a) Conservar los documentos justificativos de la aplicación de fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control.

b) Colaborar con los órganos que tengan atribuidas funciones de control financiero.

c) En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, velará por una utilización no sexista del lenguaje.

22. oinarria. *Dirulaguntza egozten zaien aurrekontu-kredituak eta deialdiko dirulaguntzen gehieneko zenbateko zenbatetsia.*

Base 22. *Créditos presupuestarios a los que se imputa la subvención y la cuantía máxima estimada de las subvenciones convocadas.*

1. Dirulaguntzak lotutako aurrekontu-epigrafe hauetan esleitutako kredituaren kargura emango dira:
2026ko ekitaldia; organikoa: 0709; programa: 922114, ekonomikoa: 43299, 2026/0099 proiektua.
2026ko ekitaldia; organikoa: 0709; programa: 922114, ekonomikoa: 73299, 2026/0099

1. Las subvenciones se concederán con cargo al crédito consignado en los siguientes epígrafes presupuestarios vinculados:
ejercicio 2026; orgánico: 0709; programa: 922114, económico: 43299, proyecto 2026/0099.
ejercicio 2026; orgánico: 0709; programa: 922114, económico: 73299, proyecto

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 4W92-RHPZ-S1SY-PIPW
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

proiektua.

2026/0099.

2. Deialdiko dirulaguntza guztien gehieneko zenbatekoa 500.000 € izango da.

2. La cuantía máxima de las subvenciones convocadas será de 500.000€.

3. Aurrekontu-kreditua honela banatuko da:

a) 2026 0709 G/922114/43299/0000 2026/0099 aurrekontu-partida: 200.000 €.
b) 2026 0709 G/922114/73299/0000 2026/0099 aurrekontu-partida: 300.000 €.

3. El crédito presupuestario se distribuirá de la siguiente manera:

a) Partida presupuestaria 2026 0709 G/922114/43299/0000 2026/0099: 200.000€.
b) Partida presupuestaria 2026 0709 G/922114/73299/0000 2026/0099: 300.000€.

Azken xedapenetako lehena. *Ahalmenak*

Lehenengoa. Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saileko foru-diputatuari ahalmena ematen zaio foru-dekretu hau garatu, interpretatu eta betearazteko.

Disposición final primera. *Facultades*

Primera. Se faculta al diputado foral del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales para desarrollar, interpretar y ejecutar este Decreto Foral.

Azken xedapenetako bigarrena. *Indarrean jartzea*

Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Disposición final segunda. *Entrada en vigor*

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

*Proposatzen du/Propuesta: Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren foru diputatua/Diputado foral del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales. AGER IZAGIRRE LOROÑO*

*Foru Aldundiak erabaki duen Foru Dekretua izenpetu du/Firma el Decreto Foral acordado por la Diputación Foral: Ahaldun Nagusia. La Diputada General. ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA*

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 4W92-RHPZ-S1SY-PIPW
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

I. ERANSKINA
**Eskabidea**

.................................................... jaunak/andreak ,........................................................................... (e)ko alkateak (IFK:.................................................................), honako hau

**AZALTZEN DU:** Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailak eta Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailak dirulaguntzen 2026ko deialdi bat sustatu dute, baserritar ekoizle-egileentzako elikagai-azoken azpiegituretan toki-eskumeneko konponketak edo inbertsioak sustatzeko. Hori ikusita, eskatutako baldintzak betetzen direla uste da, eta, beraz, eskatutako dokumentazioa erantsi da, eta honako hau

**ESKATZEN DA:** toki-eskumeneko jarduketa bat finantzatzeko dirulaguntza bat ematea, baserritar ekoizle-egileentzako elikagai-azoken azpiegituretan konponketak edo inbertsioak sustatzeko, honako xehetasun hauen arabera:

1.- Izena:...............................................

2.- Diruz laguntzeko moduko proiektuaren zenbateko osoa: ......................................................

☐**BERARIAZ UKATZEN DIOT** baimena Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailari egiaztapenak zuzenean lor ditzan ziurtagiri telematikoen bidez.

ANEXO I
**Solicitud**

Don/Doña ……………………..………………………………..…, alcalde/sa de ………………………………………………………. con CIF de la entidad local………………………..………………………………

**EXPONE:** Vista la convocatoria 2026 de subvenciones para el fomento de reparaciones y/o inversiones de competencia local en infraestructuras de mercados de alimentación destinadas a personas baserritarras productoras/elaboradoras, promovida por el Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales y por el Departamento de Medio Natural y Agricultura, considerando reunir los requisitos exigidos, se adjunta la documentación requerida y

**SE SOLICITA** la concesión de una subvención para la financiación de actuación de competencia local para reparaciones y/o inversiones en infraestructuras de mercados de alimentación destinadas a personas baserritarras productoras/elaboradoras según el siguiente detalle:

1.- Denominación:……………………………………………

2.-Importe total del proyecto subvencionable…………………………………………….

☐**SE DENIEGA EXPRESAMENTE** la autorización para que el Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales obtenga de forma directa las acreditaciones oportunas a través de certificados telemáticos.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 4W92-RHPZ-S1SY-PIPW
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

**KONPROMISOA HARTZEN DU** dirulaguntzaren xede den toki-eskumeneko jarduketan sartutako ondasun inbentariagarriak jarduketa horretan aurreikusitako helburu zehatzerako erabiltzeko, 5/2005 Foru Arauaren 29.4 a) artikuluan ezarritako gutxienekoarekin bat etorriz.

**SE COMPROMETE** a que los bienes inventariables incluidos en la actuación de competencia local para la que se solicita la subvención se destinen al fin concreto previsto en la misma, conforme al mínimo establecido en el artículo 29.4 a) de la Norma Foral 5/2005.

Agiri hauek **ERANSTEN DITUT** (bidaliko direnak markatu)

**SE ADJUNTA** *(marcar los documentos que se remiten)*

☐ Dirulaguntzaren xede den jardueraren aurrekontu zehaztua (berariaz aipatuta BEZa eta ea kengarria den ala ez), eta, hala badagokio, baloratutako proiektu tekniko bat, legez nahikoa eskumen duen teknikari batek idatzitakoa.

☐ Presupuesto detallado de la actuación para la que se solicita la subvención, con expresa referencia al IVA y su carácter deducible o no, y, en su caso, el proyecto técnico valorado, redactado y firmado por la persona técnica competente.

| | Zenbatekoa | Bakar-bakarrik baserritarrak |
|---|---|---|
| Kapitulua | | Bai/ez |
| Kapitulua | | Bai/ez |
| Kapitulua | | Bai/ez |
| Kapitulua | | Bai/ez |
| Kapitulua | | Bai/ez |
| Kapitulua | | Bai/ez |
| Kapitulua | | Bai/ez |

| | Importe | Exlusivo baserritarras |
|---|---|---|
| Capítulo | | Sí/No |
| Capítulo | | Sí/No |
| Capítulo | | Sí/No |
| Capítulo | | Sí/No |
| Capítulo | | Sí/No |
| Capítulo | | Sí/No |
| Capítulo | | Sí/No |

☐ Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik daudela egiaztatzen duten agiriak, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailak egiaztagiri horiek zuzenean ziurtagiri telematikoen bidez lortzeko baimena berariaz ukatu bada.

☐ Documentación acreditativa del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social en caso de haber denegado expresamente el consentimiento para que el Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales obtenga de forma directa las acreditaciones oportunas a traves de certificados telematicos.

☐ Idazkariaren ziurtagiria, II. eranskineko ereduaren araberakoa, alderdi hauei buruzkoa: xede bererako lortu edo eskatu diren beste dirulaguntza edo laguntza batzuk, onuradun izatea eragozten duten

☐ Informe de la secretaría, de acuerdo con modelo del anexo II, sobre otras subvenciones o ayudas que se hubiesen obtenido o solicitado para la misma finalidad, sobre las circunstancias referidas en el

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 4W92-RHPZ-S1SY-PIPW
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

5/2005 Foru Arauaren 12.2 artikuluan jasotako inguruabarrak, jarduketa egiteko toki-eskumen, baimen edo emakidak eta, azkenik, zehapenak.

artículo 12.2 de la NF 5/2005 que impiden la obtención de la condición de beneficiario, sobre la competetencia local para acometer las actuaciones, sobre las autorizaciones/concesiones y sobre las sanciones.

☐Kontu-hartzailearen edo idazkari eta kontu-hartzailearen txostena, gastua xedatzeari buruzkoa, III. eranskineko ereduaren arabera egina.

☐ Informe de la Intervención o de la secretaría-intervención de acuerdo con modelo del anexo III, sobre la disposición del gasto.

☐Memoria: jarduketaren deskribapen laburra, berariaz aipatuta, dirulaguntzaren xede den elikadura-merkatuan, 2027ko martxoaren 31ra arte aurreikusitako emakida edo baimenen kopuru osoa eta baserritar ekoizle-egileentzat aurreikusitakoa.

☐ Memoria: Descripción de la actuación a realizar con expresa mención a las nuevas concesiones/autorizaciones previstas totales y las referidas a las personas baserritarras productoras/elaboradoras, en el mercado de alimentación objeto de subvención hasta el 31 de marzo de 2027.

☐Teknikari eskudunaren adierazpena, dirulaguntzaren xede den jarduketa, IV. eranskinaren arabera, genero-ikuspegiarekin baloratu izanari buruzkoa.

☐ Declaración de la persona técnica competente sobre haber valorado con perspectiva de género la actuación objeto de subvención (según el anexo IV).

Sinadura elektronikoa

Firma electrónica

Alkate udalburua

El /La Alcalde/sa Presidente/a

OHARRA: Dirulaguntzaren jarraipena egiteko harremanetarako pertsona:
Izen-abizenak: …………………..…………………..

Telefonoa: …………………..…………………..
Posta elektronikoa: …………………..…………………..

NOTA: Persona de contacto para hacer el seguimiento de la subvención.
Nombre y apellidos:…………………..…………………..
